

bidegileak



Imanol Larzabal (1947-2004)


Egilea:

FELIPE JUARISTI

Antigua herri txikia

Manuel Eusebio Larzabal Goñi, Imanol, Donostiako Antigua auzunean jaio zen, 1947ko azaroaren 11n.

Izenak berak salatzen du auzunea zaharra dela, Donostia baino zaharra-
goa, antigoalekoagoa eta, bertakoek diotenez, naturalagoa. Donostiako lehen biztanleak hantxe kokatu ziren. Gaurko tunela muga fisiko nabarmena da, baina ez bakarra. Muga ere bada gaur egun Miramar jauregia dagoen muinoa. Historiagileek diotenez, hantxe eraiki zuten done Sebastianen omenezko monasterioa, eta jakinekoda da santuak izena eman diola hiriari eta



Imanol Larzabal Goñi (1947-2004)

ez hiriak santuari, baina hori beste kontua da.

Oraingo auzunea soilik ezagutzen duenak nekez irudika lezake ordukoa zer zen eta zer izan zen.

Oraingo Antigua hondartzaren ondoko etxe txiki eta politak dira, sailez sail zabaltzen direnak, batzuk lauan eta besteak mendi aldera; Tolosara bidean ia ezerezetik bezala sortu den unibertsiteateko eraikin funtzional eta



Manuel Larzabal, Imanolen aitaren sortetxea

ederrak dira, gaur egungo arkitekturak eskatzen dituen arauetara lotutako eraikinak; aspal-diko fabrika eta enpresak zeuden tokian, haiek hutsik geratu eta urtetan haien tokian orube huts eta galtoki izan ondoren, batez ere gaez, duela ez asko eraikitako etxe-sail argitsuak dira, plaza zabal batera jotzen dutenak. Oraingo Antigua arkitektura-erakusketa da, hiriarren molde berrien erakusketa, jende berrien erakusketa.

Baina orduko Antigua ezberdina zen gaurkoaren aldean. Kontua ez da zaharra berritu egin dela; ez, erabat aldatu da, eta aurrekoa nolakoa zen ez dakienak lanak izango ditu izan zen bezalaxe ikusten eta onartzen.

Paisaia aldatu da, eta paisaiarekin batera begirada, paisaiari bere izaera ematen dion begirada. Aspal-diko argazkietan eliza eta frontoia ageri dira. Biak ala biak lehengo tokian daude,




Manuel Larzabal gerra garaian, Loiola Batailoian

baina ez dute lehengo tokia betetzen. Antigua txikiago batean eliza erraldoia zen; Antigua erraldoi batean, eliza txiki geratu da, bai espazioan bai denboran. Begirada da aldatu, eta begiradarekin batera ikuspegia, eta ikuspegiak paisaia behartu du aldatzera, eta paisaiak unibertsoa, jira-bira mantsoan.

Mikel Arregi poeta eta Imanolen adiskide minak poema bat idatzi zuen Imanolen oroimenez. *Urte haiek gogoratuz* du izena eta poema horixe erabiliko dugu Imanolen mugarririk, muga hotz eta beroak zein izan diren azaltzeko.



Kattalin Goñi, Imanolen ama



Soldadu garaian etxera iritsitako gutuna

1957-58. Antigua herri txiki bat zen, oso kasteilanoa kalean eta orain baino euskaldunagoa inguruetan.

Paseo Herizen bi eskola parez pare, bata eskola publikoa eta bestea Maristena; denak mutile. Neskak, zorioneko neskak,

Montpellerreko eskolara joaten ziren gehienak.

Baina bazen Zumalakarregi bukaeran eskola publiko bat neskentzat bakarrik.

Ez zintudan ezagutu urte hauetan.

1957an Imanol Larzabalek, Matia kaleko mutilak, hamar urte zituen. Mutil koxkorra zen, mutil koxkor luze eta mehea, Antiguako eta parte zaharreko kaleetan barrena korrika ibiltzen zena, jolaseko nahiaren hegoak bulztatuta. Auzunea ez zen dioten bezain erdalduna, Gipuzkoa barreneko jende asko eto-

rria baitzen lanera, Azpeititik edo Zestoatik, Hernanitik edo Andoainetik. Jende euskalduna zen, etxean zein kalean euskaraz egiten zuena. Izan ere Antiguako fabrika handi eta garrantzitsuak zeuden: Lizarriturri eta Rezola, xaboi-fabrika batez ere, El León, Teodoro Kutzen garagardo-fabrika, Suchard eta Columbia Diskoak, besteak beste. El Leónen Zepai bertsolariak egin zuen lan, eta Konporta zeritzon etxean apopilo zegoen bere anaia Joxerekin. El Leónen Uztapide bertsolariak ere lan egin zuen. Zepaik bezalaxe, hark ere Konportan hartu zuen ostatu. Langileak ez ziren oso etxe txukunetan bizi, dirudienez. Txirotasun hura itsusi gelditu zen Miramar jauregia egin zenean. Antigua berritzeko batzorde bat osatu zen 1917an, eta honakoak irakur litezke

egin zuen txostenean: «focos inmundos, casas insanas, faltas de luz y de aire, de ruin construcción, y de aspecto rancio y repugnante». Aspaldiko kontuak, dena dela.

Manuel Larzabal, Imanol Larzabalen aita, *Txalupagilene* etxeko semea, gizon galant eta ederra, ikusgarria, argazkiek erakusten dutenez, Lizarriturri lantegiko enplegatua zen.

Eskola frantsesean ibilia zen Manuel, oso ikasle ona izan eta beka eman ziotelako. Bazuen nahikoa eskola eta ELA sindikatukoa zenez, eta sindikatu hori nagusi zenez lantegian, lehendakari izendatu zuten, sindikatuko kontuak eramateko. Etxera ere ekartzen omen zuen lana, bazkideen txartelak betetzeko orriak, lan-dokumentazioa...

Jakiteko zer nolako indarra zuen ELA sindikatuak, esan dezadan okindegia jarri zutela Matia kalean langileentzat.

Hernaniko Kattalin Goñirekin ezkondu zen, sei alaba eta bi seme izan zituzten, baina alaba bat (Kattalin, bederatzi urterekin) eta seme bat (jaio berritan) hil egin zitzairen. Imanol izan zen mundura etortzen azkena. Manuel Larzabal, Imanolen aita, gerra garaian, gudariek ibili zen, Loiola Batailoian. Gernikan zen hegazkin alemaniarrek su eta hauts bihurtu zutenean. Santoñan zen errendiarazi ziztuztenean, ez berez nahi zuelako, ez berez nahi zutelako han zeudenek. Hala ere zortea

Gurasoak



izan zuen, italiar ofizial batek begiz jo eta txofertzat hartu baitzuen, ofizioz gidari baitzen. Etxera gutxi etorri bazen ere, beti izan zuen moduren bat beren berri etxekoei adierazteko, gutunen bidez batez ere. Alacanten zegoela amaitu zen gerra. Handik bi hilabetera etxera etorri zen. Baina Lizarriturin ez zuten hartu: hori ere zigorra. Rezola zementu-fabrikari egin zuen lan, erretiroa hartu zuen arte.

*1962-63. Ni ia beti frontoian izaten nintzen eta zu ez zinen batere pelotari ona,
Campo de Ramonen zuen kopak futboleko finala,
Ibaetakoen kontra galdu zuenean ezagutu zintudan.
Defentsa zentral haren hankaluzeean geroko dantzariaren silueta tentea nabari zitekeen.
A zer kamisetak! A zer galtzerdiak! A zer rodillerak!
A zer tipo zuenak!
Bina Or-Konpon! Erretratuak eta guzti! A zer enbidia gurea!
Porteroak eta zuk euskaraz hitzegiten zenutela ere ohartu nintzen,
Kontrarioa despistatu nahian edo.
Ni, kanpotik etorritako izua,
Bokazioak deiturik nenbilen bakardade traszendetaletan.
Baina gustatzen zitzaidan lagunartea!*



Imanol jaio berritan



Imanol, komunio egunean

Delineante ikasketak

Antigua ez zen erabat auzune euskalduna, ezta dioten bezain erdalduna ere. Gaur egun, inguruak (Igeldo, Ibaeta...) euskaldunagoak dira auzoa bera baino. Imanol Larzabal eskola publikora joan zen ikastera, parte zaharreko Los Angeles ikastetxera, eta han egin zituen lehen ikasketak. Pilota eta futbola zituen gogoko, ordea. Mikel Arregik dioenez ez omen zen oso pilotari fina. Hobeia seguru asko futbolari moduan, defentsa zentral luze eta tentea. Baina inporta zaiguna jakitea da frontoian orduak pasatzen zituela, futbolean hainbeste.

Antiguan lehen bederen gaur baino garrantzi handiagoa zuen eraikina bazen, apaiztegia hain zuzen. Bere sinbolismoa azpimarratu nahian edo auzuneko gain bat dauka hartua eta hain da handia non toki guztietatik ikus daitekeen. Horrela ikusgarria izanik izugarria ere izan zen garai batean, eliza katolikoaren ahalaren neurrikoa, eliza katolikoaren irudi harrizkoa, eliza katolikoaren oinarria. 1954an inauguratu zuten ofizialki eta laurehun ikasle izatera iritsi zen, eta denak Donostiako etxean kabitzen ez zirenez, Saturrarango bainu-etxea prestatu zuten. Pentsatzekoa da izanik apaizgaiak Gipuzkoako eta Nafarroako herri txiki eta euskaldunetako mutilak, eragina izango zutela auzunean, auzotarrekin elkartzean. Pentsatzekoa da Antigua herri txikia bezain txikia izanik, Imanolekin topo egingo zutela. Ordukoak dira, hain zuzen, Imanolen adiskiderik handie-

nak. Imanolek delineante izateko ikasketak Mercadel Akademian amaitu zituen eta lanean hasi zen Marticorena arkitektoarekin. Hamazazpi urte zituen.

*1968-69. Kontxo! Porteroa eta zu, defentsa alto
fuerte hura detenituak izan zinetela jakin nuen.
Kartzelatik atera zinetenean hasi zen gure harremana
«Oi ama Euskalerria» bukatzen zen oso kanta polit
bat entzuna nizuen,
baina ez nuen deus konprenitu (oso letra zaila zuen
zubereraz nonbait)
Zuk protestako kantuak egiten zenituen, oso
subersiboak.
Konzientzia ukatuz kontzientziatuak izan nahi genuen.
Zapaldurik ginen ez zen libertaderik.
Batzuk zapalduak beste batzuk zapaltzaileak.
Eta batuk zapalkuntza multiplikatu ere egiten zuten:
nazionala, soziala, sexuala.
Norbait analogiaren analogiaz
Zazpi zapalkuntza teorizatzeraz ere iritsi zen.
Esan baino gutxiago irakurtzen genuen.*




Lau ahizpa. Maritxu, Mariajesus, Karmele (bederatzi urterekin zendua) eta Itziar



Imanol arriben artean

Dantzari eta kantari

skatasunik gabeko urte haien kronika eginez zenbait gertakari aipatzea ezinbestekoa zaigu, ezinbestekoak diren bezala gertakari horiek, orduko giroa ulertuko badugu. Itzal handiko kontuak izan dira. Haien eragina oraindik ere suma daiteke gugan, haiei esker baikara, neurri batez, garen bezalakoak. 1964an Gabriel Aresti poeta bilbotarrak, euskal lurra eman duen ia poeta zibil bakarrak, *Harri eta Herri* liburua argitaratu zuen. Garai berriak aldarrikatu zituen liburu horrek eta esan daiteke, okerbideetik joan gabe, euskal poesiaren aro berriari eman ziola hasiera. Hala aitortzen zuen Ibon Sara-



Ikasketak amaitutako agiria

sola kritikariak: «Donostiako Biblioteka Pro-bintzialera joaten naiz estudiatzera. *Harri eta Herri* da estudiatzen duten unibertsitarioek ateratzen duten euskal-liburu bakarra... Eus-kara jakin gabe liburu hau erosi duten unibertsitarioak ere ezagutzen ditut. Norbaitek euskal-literaturan zerbait galdetzen badit, *Harri eta Herri* lagatzen diot».

1965ean *Argia* dantza-taldea sortu zen. Ber-tan dantzan hasi zen Mikel Arregik esaten



Lagunekin, hondartzan

duen defentsa alto fuerte hura, hamazazpi urte zituenean. Ez zen nonbait dantzari kas-karra izango, ezagutu zutenek goraiatzeko baitituzte mutilaren dantzatzeko dotorezia eta abildadea. Gogora ekarri nahi nituzke Joxe Antonio Artzeren hitzak, Imanolen heriotza gertatu ondoren esandakoak: «Aurrenik, dantzari moduan ezagutu nuen. *Argia* taldekoa baitzen. Hain zen handia, oholtza dardarka jartzen zuen». Edozeinek ezin lezake halakorik lor, nahita ere.

Lehendik biltzen hasiak baziren ere, 1966an eman zuten lehen emanaldia *Ez dok amairu* taldea osatu zutenek. Kulturaren berpizkun-

dea izan zen, zalantzarik gabe, urte haietako emana bainoago opari eta uzta.

1965ean Gipuzkoan *Gaur* taldea sortu zen. Donostiako Barandiaran Galerian eskainitako erakusketa bat izan zen sorrerako ekintza. Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Nestor Basterretxea, Remigio Mendiburu, Rafa Ruiz Balerdi, Amable Arias eta Jose Antonio Sistiaga izan ziren sortzaileak. Eta Gipuzkoan bezala Bizkaian *Emen*, Araban *Orain* eta Nafarroan *Denok* taldeak osatzeko bildu egin ziren artistak. Hitz hauek balio dezakete *Gaur* taldearen asmoak azaltzeko: «Denok badakigu zein garen eta euskal artista gazte indartsu



Lagunekin

talde batek zor zaizkion lekua eta arreta aldarrikatzen dituela, eta baditugula iragana, oraina eta geroa, jakiteko zein diren gure asmoak, gure beharrak, gure bitartekoak, puntualki, bitarteko guztiak, jasaten ari garen etzanaldi kultural eta materialarekin, gure eta gure herriaren arteko isolamenduarekin amaitzeko».

Dantza-taldean sartu eta berehala hasi zen kantatzen Imanol, lagunekin eta lagunentzat, lagunekiko loturak musikaz harilkatuz, musikaren arnasaz berotuz, musikaren aireaz bilduz. Javier Larrea, portero izandakoa, eta Imanol, defentsa pinpirin hura, elkarrekin ibiltzen ziren kantatzen. Zuberoko kantutegira jotzea ez zaigu arraroa egiten, liluragarriak baitira kanta horiek, gure unibertso txikiaren eder apaingarriak. Baina ez zuten iturri bakarra. Garai haietan entzun baitzitzaion Imanoli *Ez Jai* *Ez Dantza* kanta, herria lutoz baitzegoen.

Paris mugarri

1969an Michel Etxegaray ezizenez lehen diskoa kaleratu zuen. Magnetofoi alemaniar batean grabatu zuten Antiguako parrokiako so-toan. Grabatzailea Jesus Mari Muñoa izan zen, *Txaflis* moduan ezagunagoa, geroxeago Segoviako kartzelatik ihes egitea lortu zutenetako bat. 2005ean hil zen Txaflis. Hamar mila ale saldu ziren aste batean eta hartutako diru guztia preso politikoei eman zitzaizen. Disko arrakastatsua izan zen, Herri Irratian garai hartan entzunenetakoa.

1971n alde egin zuen Frantziara. Lehenago, ordea, sei hilabetez egon behar izan zuen espetxean, ETAKoa izateagatik, Javier Larrearekin batera, porteroa eta defentsa, biak elkarrekin, 1968an. Maiatzean iritsi zen Baionara. Ziburun etxe bat hartu zuen bizitzeko. *Txori-kanta* zuen izena, izen egokia, dena dela, txorien modura kantatzea amesten zuen mutila-

MINISTERIO DE TRABAJO INSTITUTO NACIONAL DE PREVISION SEGURO SOCIAL DE ENFERMEDAD		MUTUA VASCONGADA DE PREVISION E. C. Núm. 27
DOCUMENTO DE ASISTENCIA del Asegurado		n.º 20 / 345.704
Larzábal Goñi	Manuel	
(Apellidos)	(Nombre)	
Matia 50	Sn. Sn.	
(Domicilio)	(Localidad)	
José Ramón Marticorena	21.329	
(Empresa o razón social)	(Núm. patronal)	
Sn. Sn. 11 de	Sepbre	de 196 4
(Firma y sello)		
Con derecho a asistencia a partir de	Mutua Vascongada de Previsión SAN SEBASTIAN	Remitida ficha E. 4 a Médico Medicina General en sobre n.º

Seguritate Sozialeko txartela

rentzat. 1972an Bordelen *Askatasunaren pausok tinkatzen ari* diskoa kaleratu zuen. Izenburua Mikel Azurmendi zor zaio. Bai Mikel eta bai Imanol, biak, ez batera, bakoitza bere aldetik joanda, ETAtik kanpo zeuden ordurako. Azala Tapiyesena da, Gernikako bonbardaketa irudikatzen du, oin bat odolez bustia oihalaren gainean pausoa ematen. Azalak esan nahi zuena erraza zen ulertzen garai hartan, ez dagoela odolik gabeko pausorik askatasuna baldin bada helburua. Paco Ibañezek gitarra jotzen du diskoan. Imanolek pixka bat lehenago ezagutu zuen Paco Ibañez, Boucou herrian kantatzen, Frantziako Alderdi Komunistak oraindik ere indarra duen herrian. Paco Ibañezen arima euskaldunak bultzatu zuen Imanolengana eta Imanolek

asko ikasi zuen *Apakagintzako beltzarengandik*. «Pacok profesionaltasunaren inportantzia erakutsi zidan, eta poesiaren munduan sartu ninduen, bera niretzat klabea izan zen. Liburuak pasatzen zizkidan, diskoak, nik nere gisa eboluzionatzeko» aitortu zuen Imanolek Paco Aristiri eskainitako elkarrizketa batean. Diskoak berehalako arrakasta izan zuen, irratitari esker. Radio San Sebastianen ez zen egunik jartzen ez zutenik.

Gizaki baten bizitzan badira mugarri batzuk, handik aurrera dena aldarazten dutenak, handik aurrera dena bestelakotzen dutenak, handik aurrera dena ezberdinago egiten dutenak, iraganaren eta geroaren arteko zubi eta hesi ere bihurtzen baitira. Imanolentzat



Argia dantza-taldea


Paris izan zen mugarri hori. 1973an Imanol Parisa joan zen bizitzera. Paris, orduan, 68ko maiatzaren sukarra joanxe, gaur baino Parisago zen. Paris orduan idazle eta intelektual ezkertiarren biltoki zen, musikari eta abeslarien antzoki, sentikortasunaren habia, askatasun ideien pausaleku. Parisen beste izena Utopia zen. Parisen erbestea etxe, urruti-mina gertu-min, bakardadea adiskidetasun bilakatu zitzaion Imanoli. Parisen distantzia eta denbora desagertu egin ziren. Parisen Imanolek Elisa Serna, Juliette Gréco, Georges Brassens, Leo Ferré (Imanolen aita musikala), Georges Moustaki, Colette Magny, Mikis Theodorakis ezagutu zituen, besteak beste. Parisen musika egiteko molde berriak ikasi zituen, sekula utziko ez zituenak, edo sekula utziko ez zutenak.



Martina

Parisen maitasuna ezagutu zuen, alegia Martina. Parisen kantatzen hasi zen, errefuxiatuentzat, adiskideentzat, kantatzeko eskatzen zion edozeinentzat.

Parisen *Les Chants du Monde* etxearen eskutik *Orain Borrokarenean* grabatu zuen. Baziren Mikel Azurmendiren hitzekin batera, Bertolt Brechten eta Txato Agirreren letrak ere, *Egia garesti dela*. Kanta bat Txabi Etxebarrietaren omenez egindakoa zen: «Lehengo batean kalearen erdian...» Paco Ibañezek gitarra jo zuen eta Francois Rabbath-ek kontrabaxua.



Imanol, kantatzen hasi berrian

1975eko azaroaren 20an Franco hil zen, be-
launaldi batzuen mamu sinboliko eta fakti-
koa. Hil baino lehenago, ordea, ETAko bi la-
gun eta FRAPeko hiru hiltzeko agindua eman
zuen. Hildakoen izenak hauek ziren: Juan Pa-
redes *Txiki*, Angel Otaegi, Ramón García
Sanz, José Luis Sánchez Bravo, José Humber-
to Baena. 1975ean, *Les Chants du Monde*
etxearen eskutik berriro, Imanolek *Herriak*
ez du barkatuko diskoa kaleratu zuen. Azala
Agustin Ibarrolarena zen. Bi kanta *Martillo Pi-
lón* eta *Caminito de Erandio* gazteleraz kan-
tatu zituen. Bi kanta hauek Arestik bidali ziz-
kion Imanoli, kantatzeko aholkatuz. *Herriak*
ez du barkatuko gazteleraz eta euskaraz kan-
tatu zuen. Diskoan Gwendal taldeak hartu
zuen parte. Gwendalekoak Parisen ezagutu
zituen Imanolek eta Euskal Herrira etortzea



Imanol, lasterka egiten

erabaki zuenean, haiek ekarri zituen bera-
rekin. Frantzian ezezagunak baziren ere, he-
men oso ezagunak izatera iritsi ziren. Beraiek
asmatu zuen «folk-zelta» deitura. Imanolek
musika kontuan ausarta ez ezik, bidegile ere
bazela erakutsi zuen gaztelerazko letrak kan-
tatzean. Jende askori ez zitzaion hori batere
gustatu. Zapaldurik ginen, bai, ez genuen li-
bertaterik. Baina Imanolek askatasuna zuen
maite, ezer baino lehenago. Askatasunik gabe
artista ez baita artista, morroi zerbitzari eta
kontakatilua baizik.



Imanol, amarekin

Berriro Euskal Herrian

1976an itzuli zen Euskal Herrira.

1975-76. Itzulera.

Gizon helduago, jantziago eta jakitunago ikusi zintudan.

Eskarmentuaren poderioz kantuen aiak txukunago moldatuz,


Hitz gogorren zalaparta jostaketaren legeak ezagutuz

Musika itz bihurtuz joan zen eta hitza musika guztion mesedetan,

Agindu ideologikoen morrontza esklabotik ihes eginik.

Banekien poemak gustatzen zitzaizkizula.

1977an Gwendalen laguntzaz *Lau Haizetara* diskoa kaleratu zuen, CBS etxea-



Atzerrian, handi izan nahi

ren eskutik. Imanol Mikel Arregirekin egina zuen topo ordurako eta kantatzen hasia ere bai haren poemak: *Lau Haizetara* eta *Maitasunaren Sutegia*. Gainerako letrak Mikel Azurmendirenak (*Euskadin Castillan bezala*), Arestirenak (*Irakaslerik onena, bizitza*) eta Somorrostro ezizeneko poeta batenak dira. *Berriko Zortzikoa* eta *Arin-Arin* instrumentalak dira: musika hutsa.



Rafa Ruiz Balerdik egindako portreta



Karlos Gimenez eta Felipe Juaristirekin

Imanol berria zen Euskal Herrira etorritakoa, ez soilik helduagoa, jantziagoa eta jakitunagoa. Sentikorragoa ere bai, musikarekiko maitasunak, hitz ederrekiko lilurak, poetekiko errespetuak bultzatu zuten kantuaren munduan ikerterazera, musika eta letra uztartuz edertasuna eta giro gogoangarriak sortzera. Imanolen kantak giroak dira, atmosferak, hasperen eta taupada-muinoak, beroak, gozoak, eramangarriak. Imanolen kantetan hitzak leunki irristatzen dira armonia argi eta ia gardenen gainetik, estropezurik gabe. Ahotsa ongi moldatzen zuen ordurako, ia behartu gabe nahi zuen tokiraino eraman zezakeen, goian eta behean erabiliz, jolasean. Sekula ez zitzaion hausten.

Mikel Arregi poeta izan zitzaion, adiskide bezainbeste, hil zen arte. Baina poeten zerrenda aurkitu berria zuen. 1978an Karlos Giménezekin egin zuen topo. Karlosen pianoa ere adiskide izan zitzaion azkenera arte.

1979an *Sentimentuen Hauspoz* diskoa grabatu zuen, IZ etxearen eskutik. Letren egileak Mikel Arregi (*Poeta Kaxkarra*), Lauaxeta (*Amaiur Gaztelu Baltza*), León Felipe (*La Parábola*), Somorrostro (*Mayo*, Imanolen kanten artean ezagunenetakoa), besteak beste. Herri-kanta bat ere bada diskoan, *Maitiak Galde Egin Zautan* hain zuzen. Klabelin Komik taldeak jo zuen diskoan.

1980an Klabin Komik taldearekin *Jo ezan* diskoa kaleratu zuen. Musika aldetik rocka eta folka nahasten dira. Elektrikoa da. Katalogoetan rock progresibotzat jotzen dute. Gabriel Arestiren *Joseba Mendizabal, Zaldibian* nabarmentzen da: «Etarren amek asko sufritzen dute, semeak hiltzen dizkietenean eta batez ere semeek hiltzen dutenean...». Baita Mikel Arregiren *Koplak* eta Xabier Amurizaren *Akerraren Adarrak* ere.

1982n *Etxahun eta Etxahun* diskoan parte hartu zuen, Amaia Zubiria, Niko Etxart, Beñat Axiari, Pascal Gaigne, Karlos Giménez eta Santi Giménezekin batera. Etxahun izeneko bi poeta zuberotarrei (Irurikoari eta Barkoxekoari) egindako omenaldia da. Imanolek bi kanta abestu zituen: *Bi Berset Dolorusik* eta *Ahaide Delizius Huntan*.

1983an *Iratze Okre Geldiak* diskoa kaleratu zuen. Disko honetan marraztuta ageri da Imanolen kantagintzaren geroak zein norabide hartuko duen. Poeten egongua da, poeten bilera, poeten atsedentokia. Aipa ditzadan batzuk, guztiak ezinean: Lizardi (*Berrito Igo Nauzu ene Mendira*, Imanolek oso maitea zuen kanta), Amuriza (*Mendian Gora*, Imanol-zaleen zalekeriak asebetetzen dituen kanta), Xabier Lete (*Zorion beti besterena, Malkoak Euri Balira, Ez Nau Izutzen Negu Hurbilak*),

Koldo Izagirre (*Zure Bularretan/Ene Haserrea*), Juan Mari Lekuona (*Kopla Berriak*), Mikel Arregi (*Zuek Hil Zineten*).

1984an *Erromantzeak* kaleratu zuen, disko bikoitza: hemezortzi kanta guztira. Asko Iparraldeko tradizioetik hartutakoak dira. Azala José Mari Zabalarena da. Karlos Giménezekin batera, Pascal Gaignek, Amaia Zubiriak, Beñat Axiarik eta Iñaki Eizmendik parte hartu zuten. Imanolen ahotsak euskal baladei ezagunak ez zituzten neurriak eman dizkie disko honetan. Diskoa sortzeko irrika Juan Mari Lekuonaren *Ahozko literatura* liburua irakurri ondoren piztu zitzaion. «Ni beti oso lotuta egon natzaio herri-musikari, Argia dantza-taldean hortik eta hemendik herri-dantzak jasotzen



Sigfrido Koch argazkilariaekin



Marino Lejarreta bisitatzeko, erietxean




Imanol bere familiarekin



Imanol, Luis Pastor musikariarekin eta Carmen Peirerekin




Juan Mari Lekuonaren eskaintza eta liburua





Txema Garces musikariarekin



Muga Beroetan eta Erromantzeak diskoen azalak



Paco Ibañez kantariarekin



genituenetik, hain zuzen», adierazi zuen kazetarien aurrean.

1985ean *Oroituz* diskoa kaleratu zuen. Imanolek Jon Miranderen eta Juan Mari Lekuonaren poesia ezagutu, onartu eta barneratu egin zuen, lehenago Gabriel Arestirena bereganatu zuen bezala, samur eta umil, ez pobre, ordea, dotore eta aberats baizik. Aberatsa baita diskoa, musikaren ikuspegitik. Karlos Giménezek pianoa jotzen du, Satieren doinu bati hautsak astintzen dizkio. Jean Louis Hargousek saxoa; Jean Paul Gillesek, kontraba-

xua; Michel Longaronek, bateria; Iñaki Peñak, soinua. Azala José Mari Zabalarena da. Xabier Lete eta Juan Mari Lekuonaren letrak ere badira diskoan. Elkar disko-etxeak kaleratu zuen. Imanolen indarra poema paregabe horien indarrean lekutu da. Poesia musika egin da, eta musika poema, arintasun, aire, txori.

*1986-87. Poemak maite zenituelako kantatu zenuen
Villafrankan eta Anoetako frontoian.
Eta geroztik musikoago, libreago eta lagunago zaitut
ederzaleen baratzean,
Miseria nazionala ere baita.*



Labordeta kantariarekin

Yoyes, Mea kulparik ez

1986an Dolores Gonzalez Katarain, Yoyes, hil zuten, Ordizian, bere herrian zegoenean, semearekin. Imanol eta beste kantari batzuk Ordiziaraino joan ziren senideei elkartasuna adieraztera eta bertan kantatzera. Ekitaldi horrek ondorio latzak ekarri zizkion Imanoli. Beste euskal artista batzuei ere bai. Errukia ziolako sufritzen zuen edonori, elkartasuna hitza baino gehiago zitzaiolako, zuzentza ekin-tzetan eta hitzetan azaldu beharrezkotzat jotzen zuelako joan zen Ordiziara kantatzera. Ez zioten barkatuko. Intxaurrendoko paretan bat belztu zuten, Imanol «traidorea»ren heriotza nahi zutenek. Adiskideak bildu zituen gero «Beldurraren kontra» emanaldian, 1990an. Ez diote barkatu.



Ainhoa Artetarekin

1986an *Mea kulparik ez* kaleratu zuen. Maite zituen poetak hartu zituen bidaikide: Mikel Arregi, Joseba Sarrionandia, urte bat lehenago, 1985ean, Martutenetik ihes egiten lagundu ziona, Xabier Lete, Koldo Izagirre eta Juan Mari Lekuona. Paco Ibañezek *Ilun-lkarak* kantari ahotsa jarri zuen. Soinu aldetik indar erakustaldia da. Txema Garcésék, adiskide ez ezik, Imanolekin lankide ere izango denak parte hartzen du.



Imanol, Intxaurrendon, Ibarrolaren arte-lanarekin

Zuzeneko emanaldiak gutxitu egin zitzaizkionez, diskogintzan sartu zen buru-belarri. 1987an *Joan Etorrian* kaleratu zuen, disko bikoitza. Bertan daude Imanolen kanturik irudikorrenak, kanturik hunkigarrienak, kanturik bihotz-urragarrienak. Imanolen ibilbidea zein izan den erakusten dute. 1996an Europan banatu zuen; 1998an gaztelera-ko itzulpenekin Espainian.



Ibarrola eskultorearekin

1989an *Muga Beroetan* diskoa kaleratu zen. Seguru asko Juan Mari Lekuonak lagunduko zion izenburua aukeratzen. Mikel Arregi, Jon Mirande, Koldo Izagirre, Joxe Agustin Arrieta, Louis Aragon, Joserra Garzia, Juan Garzia, Felipe Juaristi, Xalbador, Alfonsina Storni, Joxe Alfonso. Diskoan parte hartu zuten, besteak beste, Amaia Urangak, Toti Solerrek eta Paco Ibañezek. Azala Sigfrido Kochena da. Elkar argitaletxeak kaleratu zuen.

1990ean *Amodioaren Berri* diskoa kaleratu zuen. Azala Sigfrido Kochena da. Euskal Herriko herri-kanta lantzen du. *Bortian Ahüzki*, Imanolen ahotsean, gure barne-gogo kolekti-boan luze baino luzeago geratu den kanta dugu.

1990ean ere *Viajes de Mar y Luna* diskoa kaleratu zuen, oso-osorik Alfonsina Storniri eskainia.

1994an *Barne Kanta* diskoa kaleratu zuen, gogoeta luze eta sakona. Easo Abesbatza eta Euskadiko orkestrako soka-taldea izan zituen laguntzaile. San Juan de la Cruzen testua du oinarri, Orixeren itzulpen euskaldunean. Azala Eduardo Txillidarena da. Seguru asko Imanolen diskorik sakonena, Karlos Giménezek ongi asmatutako musika eta Orixeren hitzak orekan.

1996an *Hori Bera Da* diskoa kaleratu zuen. Azala Ibarrolarena da, Omako basoan eginda. Berriro elkartu ziren aspalditik elkar eza gutzen zuten bi euskal artistak, musikaren aitzakian, artearen izenean, adiskidetasunaren

deiarri erantzunez. Mirande maitea (Moustakiren ahotsaren laguntzaz), Rimbaud (Mikel Lasaren itzulpena baliatuz), Patziku Perurena, Etxahun Irurikoa, Mikel Arregi, Joseba Sarrionandia, Jacques Brel (Andoni Lekuonaren itzulpena), Lizardi.

1999an *Oroitzen*, kaleratu zen: Paco Ibañez eta Imanol, biak batera. Azala Jorge Oteizarena da. «Imanol, Moises eta Uliseren artean hago...» zioen Orioko artistak.

1999an ere Imanolek anbizio handiko lan bat kaleratu zuen: *Ausencia*, hain zuzen. Gazte-erazko hitzak dira guztiak, eta poeta handiak ekarri zituen ahotsera: Lope de Vega, Gabriel Celaya, Pablo Neruda, Alfonsina Storni, Violeta Parra, Louis Aragon, Quevedo, Góngora, Pablo Guerrero, Pedro Salinas. Azala, Jorge Oteizarena zen.

Giro jasanezina

Gero, 2000 urtean edo izango zen, hemendik alde egitea erabaki zuen urtea. Euskal Herriko giroa jasanezina egin zitzaion, beldurgarria egin zitzaion, arriskutsua egin zitzaion. Joan egin zen hegoaldera, aldako hegaztiak joaten diren bezala, tren alderraiak joaten diren bezala, turistak joaten diren bezala. Baina turista izan gabe. Parisen ez bezala, urrutimina ezin izan zuen laburtu, distantzia are distantziago bihurtu zitzaion, barne-muinei tiraka eta tiraka arituz. Biziaren mugak ezabatu zitzaizkion, erbestea bere gordinean ageri zitzaion, bere bakardadean, bere mikatzean. Ez daude bi erbestaldi berdinak direnik. Parisen bere urrutian Euskal Herritik gertu zegoen; Torreviejan bere gertuan, oso urruti. Ez zen kilometroen kontua, badira distantzia eta tartea neur ez



Imanolen berezko irudia

Oteiza eskultorearekin

daitezkeenak, barne taupada azkarren, isuritako malko arinen, begirada lausoen bidez ez bada. Benetako erbestea hori baita, denborarik gabeko denbora, distantziarik gabeko distantzia.

Hala ere, 2003an *Versos Encendidos* diskoa kaleratu zuen. Becquer, Alfonsina Storni, Pablo Neruda, Jacques Brel, Lizardi, Violeta Parra, Pablo Guerrero eta Xabier Lete izan ziren aukeratutako poetak. Disko hori bera Donostiako Kursaalaren aurkeztu zuen, 2003ko otsailean.

Handik urtebetera, gutxi gorabehera, hil zen, hil zitzaigun Imanol, 2004ko ekainaren 25ean, Orihuelako erietxean Miguel Hernández poetaren herrian.

Imanolen errautsak Donostiako hilerrian daude. Haren gorputz-zatiak, ordea, berarena ez den beste batzuen gorputzetan egonik, bizirik dira oraindik. Imanolen arreba, Maritxu, Mariajesus, Itziar, Arantxa, Inazi, bizirik dira oraindik. Adiskideak ere bizirik ditu oraindik. Entzuleak bezala. Kanta bat ahanzmenaren aurkako doinua da, kanta bizitzaren aldeko aldarria da, kanta bat doinuz doinu eta hitzez hitz, muga guztiak gainditzen dituen airea da. Kanta bat esperantzaren jantzia da. Imanolen kantak entzuten diren bitartean bera ez da ahantzia izango, bera ez da erabat hilik izango. Haren memoriak iraungo du mila urte, haren kantuek irauten duten adina. Imanolen neurria ematen segitzen dute, segituko dute.



Abesten

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkie:

- Larzabal-Goñi familiari
- Orioko Tomasi
- Imanolen lagun guztiei

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2006ko urria

Ale-kopurua: 2.100

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2454-1 (Lan osoarena)
84-457-2456-7

L.G.: BI - 1850-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística